


Estilo eta formen arteko talka da Alicia Martín eta Garikoitz C. Murua artisten TEKTONIKA erakusketa berria

Bi artistek elkarrekin aurkeztu dute lehen aldiz beren lana Cristina Enean, bakoitzaren estilo, teknika eta diskurtsoek elkarrekin talka egiten duten erakusketa batean, eta adierazpide, hizkuntza eta mezu berriak sortu dituzte. Erakusketa apirilaren 1ean irekiko da, eta ekainaren 12ra arte egongo da ikusgai.



Donostia, 2022ko martxoaren 30a.- Lurra mugitzen duten korranteek sortzen duten ezegonkortasuna eta kaosa dira, aldi berean, planetaren aniztasun biologikoaren erantzuleak. Bere azalaren gainean, eta mugitzen ari diren plakak bailiran, bizitza sortzen eta hedatzen da, eta bertan jarraitzen dugu mugitzen, topatzen, talka egiten. Geologiak eta plaka tektonikoek bizi dugun arroka honi, Lurra izenekoari, zentzua eta forma ematen dioten bezala, Alicia Martín eta Garikoitz C. Murua artisten mezu, teknika eta diskurtsoek talka egiten dute Cristina Enea Fundazioaren erakusketa berrian: **TEKTONIKA**. Erakusketa apirilaren 1etik aurrera egongo da ikusgai (inaugurazio publikoa, artistak bertan direla, 17:00etan). *"Erakusketa honetan, bi artistek proiektu bateratu bat garatzen dute, ustekabean elkartutako esperientzia propioetatik abiatuta, eta esperientzia horiek iruditeria berri bat sortu arte eboluzionatu dute"*, azaldu du Eneko Calvo Cristina Enea Fundazioko erakusketa-proiektuen arduradunak.

Garikoitz C. Murua (Donostia, 1978) tamaina eta formatu desberdinetako hainbat piezarekin dator Tektonika erakusketara. *"Bi bider bi metroko panelak, formatu handiko mihise bat eta formatu txikiko 15 pieza inguru, lan minimoak eta xehetasun handikoak aurkezten ditut"*, azaldu du Tolosan bizi den artista donostiarrak. Muruak dioenez, bere lana oso lotuta egon da beti zirkuluaren irudiarekin, *"forma geometriko horrek niretzat duen esanguragatik eta horrek zikloekin duen erlazioagatik"*. Artista donostiarraren esanetan, *"ziklo batek ez du amaierarik, jarraitutasuna baizik, eta, erakusketa*



honetarako, bizi-zikloaren fase desberdinetan dauden lore eta landareak aurrez aurre kokatzen ditut", bizitzari eta heriotzari buruzko gogoeta proposatuz.

Muruak post-graffiti gisa deskribatzen du bere estiloa, mugimendu horretatik baitator, nahiz eta mugimendu horren parte ez izan. Azaldu duenez, bi artistek antzekotasunak eta loturak dituzte beren lanen alderdi organikoari eta sortzen duten mugimendu-sentsazioari dagokienez. *"Orduan pentsatu genuen plaka tektonikoen ideia izan zitekeela azalpen honen oinarria, talka egiten duten eta, aldi berean, mugimendu berri bat sortzen duten bi pertsonen ideien arteko topaketa baita".*

Horrela, lurra zizelkatu eta geruzak osatzen dituzten indar telurikoetan inspiratzen da erakusketa. Lurrazalari, haren zatiei, tolesturei, patroiei eta materiari buruz hitz egiten du, eta haren adierazpen-potentzialak pintura-jarduerarekin lotzen du. Horrela, adierazpen-modu bat sortzen da, hausnarketak planteatzen dituen sortze-prozesuaren beraren eta hasieratik gure mundua birmoldatu duten ustekabeko gertaeren artean.

Bestalde, Alicia Martín López cacerestarrak (Plasencia, 1982) paper gaineko teknika mistoz egindako formatu handiko piezak aurkezten ditu, zura edo metakrilatoa bezalako euskarrietan muntatuak, *"mundu mineralaren eta materia piktorikoaren arteko lotura sortuz, ingurune natural aldakor eta zatikatuetan oinarrituta".*

Martínek adierazi duenez, bi artistek euren lanen teknika eta diskurtsoen arteko lotura puntu bat aurkitu nahi izan dute. *"Estilo oso desberdinak diruditen arren, zenbait lotura ikusi ditugu gu bion lanen artean",* eta horiek bat egin dute Tektonika zer den adierazteko, *"mundua aldakorra den eta lurra zizelkatzen duten indar telurikoei buruzko hausnarketa".* Aliciaren lana, berak azaldu bezala, pinturatik abiatzen da eta bere lengoaien eta potentzial guztiaren ikerketan oinarritzen da. *"Materiari eta formari buruzko ikerketa fase batean murgildu naiz",* bere azken proiektuetan *"fenomeno geologikoen eta prozesu piktorikoen arteko lotura"* estua sortuz.

Erakusketaren inaugurazio irekia eta publikoa, bi artistak bertan direla, apirilaren 1ean, ostirala, arratsaldeko 17:00etan Cristina Enean.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:

